## ERAKUNDEAREN DATUAK

Datu hauek eta praktika onen fitxa betetzerakoan, baimena ematen duzu goian agertzen diren eremuak eta betetako praktika onen fitxa Euskaliteko webgunean argitaratzera, modu irekian zabaldu daitezen.

| | |
|---|---|
| **1. Erakundearen izena:** | UPV/EHUko Arabako Campuseko Errektoreordetza |
| **2. Sektorea:** | ☐ **Hezkuntza**<br>☐ Industria<br>☐ Osasuna<br>☐ Zerbitzuak<br>☐ Administrazio publikoa<br>☐ Gizarte ekintza |
| **3. Langile kopurua:** | 55 langile. |
| **4. Webgunea:** | https://www.ehu.eus/eu/web/araba |
| **5. Erakundearen jardueraren deskribapena:** (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak…): | Arabako Campuseko Errektoreordetzaren eginkizunak dira campusaren gobernua, ordezkaritza eta administrazioa. Errektoreordetzak harremanak bultzatzen ditu campuseko ikastegien, sailen, ikerketa-institutuen eta hura osatzen duten gainerako unitateen artean. Era berean, UPV/EHUren eta inguruko erakunde publiko eta pribatuen arteko ohiko harremanak bultzatzen eta gauzatzen ditu. Horrekin batera aipagarri dira honako egiteko hauek:<br>- Campuseko ikastegietako irakats-eskaintza aztertzea eta koordinatzea.<br>- Esperientzia Gelen jarduera akademikoa antolatzea.<br>- Campuseko kirol- eta kultura-jarduerak bultzatzea eta antolatzea.<br>- Ikerketa-jarduera eta ekintzailetza sustatzea eta enpresak sortzeko ekimenak bultzatzea, boluntarioen eta garapenerako lankidetzaren arloko ekintzak bultzatzea eta ingurumen-gaietan sentsibilizatzeko ekintzak sustatzea.<br>- Unibertsitateko egoitzen eskaintza zabaltzeko politika diseinatzea eta garatzea.<br>Halaber, Campuseko Gerentziaordetzaren bitartez, campuseko kudeaketa ekonomikoa eta administratiboa gauzatzen da, eta zerbitzu orokorren jarduna zuzentzen da. |

### Harremanetarako datuak

Eremu hauek hautazkoak dira. Datuak betetzen badituzu, webgunean azalduko dira bere horretan. Horrela, zure praktika interesgarria suertatu zaion erakundea zurekin harremanetan jarri ahal izango da:

| | |
|---|---|
| **Solaskidearen izen-abizenak:** | Eider Goñi Palacios |
| **Helbide elektronikoa:** | eider.goni@ehu.eus |
| **Telefonoa:** | 945014304 |

## PRAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

| | |
|---|---|
| **1. Praktika onaren titulua:** | Bilerak euskaraz egin |
| **2. Praktika onaren azalpena:**<br><br>Zer da? Zertan datza?<br><br>Nondik dator?<br><br>Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak? | 2021ean Arabako Campuseko errektoreordetzara zuzendaritza talde berria sartu zen, bere osotasunean euskalduna dena. Kide guztiek euskara lehenesten zutenez, bilerak euskaraz egitea erabaki zen. Hau errektoreordetzan egiten diren bilera guztietara zabaldu ezin bada ere, Campuseko Batzarrak euskaraz egitea ere erabaki zen, aldibereko itzulpen zerbitzuaren laguntzarekin.<br><br>Honek laguntzen du euskaraz aritu nahi diren horiek egin ahal izatea, euskal hiztunak ez direnen ulermen aukerak kaltetu gabe. Modu horretan, euskararen presentzia areagotzen da eta bertatik eratortzen diren komunikazio informalak euskaraz izan daitezen aukerak handitzen dira. |

## PRAKTIKA ONAREN INGURUKO DOKUMENTAZIOA, IRUDIAK, GRAFIKAK…

**(Hemen itsatsi tresna/dinamika/praktikaren irudiak, dokumentuak, grafikak, eta abar.)**